

## **Legegintza eta inkestak**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1997-07-27: 3.

Inkesta, jakina da, gizarteak gai jakin batetaz duen iritzia jasotzen edo igartzen ahalegintzen da. Saio labur bat da, ez besterik, baina askotan kazetaritzarako balioa duen hurbiltasun bat lortzen du. Batzuk fede gehiago diote besteak baino. Orain auzitan jarri duen gaia, legegintzan ofizialki egin nahi dituzten aldaketa batzueganako jarrera publikoa da: egunkari batek jakin nahi izan du krimenen aurka legedian egin nahi dituzten zigorren gaiztotzeak herriak orokorrean onartuko lituzkeen ala ez, eta honen inguruan beste xehetasun batzuk. Badirudi auzia ximplea dela, baina barruan dakartza zailtasunak. Eragina izan duen gertaera oso larria da: Ermuko Udalean zinegotzi zen PPko gazte baten heriotza dramatikoa eta krudela, eta denok ezagutzen dugun erantzitako inguramena dela medio, bidezko den honelako planteamendua egiteko. Alde batetik, legediaren objetibitatea berari ez ote dion kalte egingo, eta nola, nolana, herria bera dagoen desoreka emozionala ez ote den txarrena bat-batean honelako galderari zuzen erantzuteko. Distortsio larriak sor daitezkeela, eta legearen beharrezkoa, ezinbesteko, orekari gaitz egin!